

EĪBARKΘ HĪKA

:polsikuan:

EINGO
JONAU?

BAĪ, EINGO
JUAU!



SARRERIA

Eibarko hika poltsikuan

Eibarren egunerokoa izan da hika egitea XX. amaierara arte, baina azken belaunaldietan desagertzen joan da eta gaur egun gutxi dira hika egiten dutenak herriko kale eta baserrietan. Liburuxka honen helburua hika berreskuratzen laguntzea da: hika ikasteko erreminta erabilgarri bat eskaintzea. Mugikorrerako Appa hi! aplikazioa ere atera genuen, baina papereko euskarria ere beharrezko ikusten dugu, hikaren inguruko informazio orokorra eta adizki nagusiak eskura edukitzeko. Liburuxkaren azalpenak herriko euskararen aurkituko dituzu, bertan biltzen diren adizkiak ere Eibarkoak dira eta. Ikasketa on!

Gainbeheriaren arrazoi nagusixak

- 1-Euskeriaren desprestigiua, erderiaren aurrian (gerraosteko urtietan, erderarako joera haundixa)
- 2-Basarrittarren hizkeratzat hartzia, eta basarrittarrak gutxiestia
- 3-Hizkera takarra eta errespetu gutxikua zala pentsatzia: ez fiña (eta batez be emakumezkuendako ez aproposa)
- 4-Erregistruaren beraren mugak: hika ezin jako edozeiñi egin

Eibarko familixa gehixenetan etena egon da hikaren transmisioan (kalian basarrietan baiño lehenago). Ez zala berbeta aproposa pentsatzen zeben.



HIKA: LAGUNARTEKO TRATAMENTUA

Hiru tratamendu edo erregistro erabili izan dira Eibarren:

- 1-Berorika. Errespetuzkoa. Estatusa markatzeko: abadiari, medikuari, maisuari berba egiteko erabiltzen zana... Gaur egun galduta dau.
- 2-Zuka. Zabaldueña, neutrua, egoera guztietarako balio dabena.
- 3-Hika. Lagunartekua, informala.



Zer emoten dau hikak?

Bizittasuna, aberastasuna, konfiantzia, konplizadadia, hurreko sentitzia, identitate-marka bat, lotura bat zuztarrekin, bardintasunaren aldeko kiñu bat, gure hizkuntziaren ezaupidia, komunikatzeko baliabidia...

Zeiñekin bai eta zeñekin ez?

Hika ez jako edozeiñi egin izan: bardiñen artian eta konfiantza-giruan erabili izan da. Esate baterako, sasoi baten ez zeuan ondo ikusitta gurasuari edo askoz zaharragueri hika egittia. Dana dala, gaur egunian gero eta salbuespen gehixago egitten dira, izan be, hikaren biziraupenerako, tradizioa aldatzen doa.

Genero-markia, hikaren berezitasuna

Hittanoz edo hika dihardugunian, mutilleri ala neskeri berba egin, aditz-formia aldatu egiten da:

“**Eingo jonau?**” (Egingo jonagu) > emakumezkueri (‘noka’ esaten detse batuan)

“**Eingo juau?**” (Egingo juagu) > gizonezkueri (‘toka’ esaten detse)

Bardin da berbetan diharduana mutilla ala neskia dan; **zeiñi berba egitten jakon** da inporta dabena, aditz-formia horrek baldintzatuko dau eta. Horri ‘alokutibua’ be esaten jako: gurekin berbetan diharduana kontuan hartuta, aditzari marka bat edo bestia ipintzia.



Biren arteko tratua

Hika egittia biren arteko tratua da. Ez dakagu danekin hika egin biharrik. Eta bakotzak erabakiko dau, berari noka ala toka zuzentzia nahi daben.

ADITZ GUZTI-GUZTIAK HIKA?

ZU-ren ordeiz, beti HI

Hika dihardugunian, bigarren pertsonia ez da ZU, HI da:

*Zu etorri zara > Hi etorri **haiz***

HI pertsoniarekin, hikako aditz-formak erabiliko dittugu beti, baita menpeko esaldixetan be: “*Damututa **hao**, ez **haizelako mendira juan**”.*

1. eta 3. pertsonetako adizkixak be hikako formetan esaten dira:

NI
HA
GU
HAREK

*“Gaur berandu jaiki **non/k**”
“Mikel be etorriko **don/k**”
“Egingo **jonau/juau?**”
“Harek guri begira **daonaz/dauaz**”*

ZUEK beti da ZUEK; eziñezkua da aditzak hika ipintzia 2. pertsona pluralian.



Menpeko esaldixetan, HI danian bakarrik

Menperagaillu baten bidez bi esaldi alkartzen diranian, bat menpekua izaten da eta bestia nagusixa. Hika dihardugunian, esaldi nagusiko aditza hikako forman erabiliko dogu beti (ZUEK ez bada). Menpeko esaldiko aditza, ostera, HI danian bakarrik erabiltzen da hikako forman.

NI Etortzen **nonanian/nokenian**, berba eingo **jonau/juau**
Etortzen **naizenian**, berba eingo **jonau/juau**

NIK Ez **jakiñat/jakixat** zer ein bihar **jonaten/juaten**
Ez **jakiñat/jakixat** zer ein bihar **doten**

HA Gosia **jakanalako/jaukakelako** etorri **don/k** hain aguro
Gosie **dakalako** etorri **don/k** hain aguro

GU Zoratuta **gaonazela/ gauazela** esan **jestan/k!**
Zoratuta **gaozela** esan **jestan/k!**

Gehixenetan erreza da jakitzia aditza menpekua dan ala ez, amaieran markaren bat eukitzen dabelako (-ELA, -ELAKO, -ENIAN, -ETIK, -EN...), baiña ez beti.

HAREK Maddik ein **jonan/juan** lanaren ordaiña jasotzeko **jakan/k** oindio.
Maddik ein **zeban** lanaren ordaiña jasotzeko **jakan/k** oindio.

Baldintzetan, galderetan eta aginduetan bai

Herri batzuetan (eta euskera batuan) baldintzazko aditz-formatan ez da hikako formarik erabiltzen, baiña Eibarren bai. Ez dakigu beti holan izan dan ala ez, baiña gaur egun edadeko pertsonak be holan erabiltzen dabe, ez beti, baiña sarri:

BALDINTZIA *Ni alkatia **banitzon/banitzok**,
herri osua konponduko **najeuken/najeukek***

Bardiña pasatzen da galderetan, harridurazko esaldixetan eta aginduetan: leku batzuetan ez dabe hikako formarik erabiltzen. Eibarren normalian bai:

GALDERIA
HARRIDURIA
AGINDUA

*Ze esan **jon/jok?** Etorriko **don/dok?**
Horrek mozolo haundi batzuk **dittun/dittuk!**
Hi, etorri **hari hona!***



Genero-marka bariko aditzak

Badagoz hikako forma batzuk mutillendako eta neskendako bardiñak diranak: haiz, habil, hator, hoia, hau... genero-marka bariko aditzak dira. Bixendako balio dabe.



Hika dihardugula, beste adizetan neska/mutil bereizketia egitten danez, batzuk Hlren bigarren marka bat gehitzeko biharra sentitzen dabe, batez be neskeri zuzendutako adizetan (-na-), genero-markia falta dalakuan: *hitzan/hitzanan, hestan/hestanan...*

ADITZ-TAULAK: IRIZPIDIAK

Aditz nagusixak

Gehixen erabiltzen diran aditzak batu dittugu liburuxkan, ez danak. ZUEK pertsoniarekin lotutako formak be ez dittugu sartu, ezin diralako hika esan.

Aldaerak

Adizki batzuk modu baten baiño gehixagotan jaso dittugu. Normala da aldaerak egotia: auzo batetik bestera aldaketak egoten dira eta baita auzo bakar baten be, etxetik etxera. Baiña ezin, ba, tauletan danak ipini!

Esan eta idatzi, desbardin

Berba egitteruzkuan jaten dittugun konsonantiak eta silabak parentesi artian ipini dittugu: jaka(g)u, n(aj)etonan, n(aj)ebixan, ha(g)o, ga(g)onaz, da(g)uaz...

Kontuan euki biharrekua:

berbak alkartzerakuan be jaten dittugu letra batzuk (emongounat, eiñik, etxakiñat...), baiña hori ezin da adierazi aditz-tauletan.



NOR

Oraĩnaldixa

Naiz > non / nok
Zara > haiz
Da > don / dok
Gara > gaittun / gaittuk
Dira > dittun / dittuk

Lehenaldixa

Nitzan > nitzonan / nitzuan
Ziñan > hitza(na)n / hitzan
Zan > zonan / zuan
Giña(ze)n > giñona(ze)n / giñua(ze)n
Ziran > zittunan / zittuan

NOR-NORI

(NOR: Ha)

Oraĩnaldixa

Jata > jatan / jatak
Jatzu > jan / jak
Jako > jakon / jakok
Jaku > jakun / jakuk
Jakue > jakone / jakuek

Lehenaldixa

Jatan > jatanan / jatan
Jatzun > janan / jan
Jakon > jakonan / jakuan
Jakun > jakunan / jakuan
Jakuen > jakonen / jakuen

NOR-NORI

(NOR: Harek)

Oraĩnaldixa

Jataz > jatanaz / jatazak
Jatzuz > janaz / jazak
Jakoz > jakonaz / jakuaz
Jakuz > jakunaz / jakuaz
Jakuez > jakonez / jakuezak

Lehenaldixa

Jatazen > jatanazen / jatazen
Jatzuzen > janazen / jazen
Jakozen > jakonazen / jakuazen
Jakuzen > jakunazen / jakuazen
Jakuezen > jakonezen / jakuezen

ASPERTU EİN
NITZONAN
LEHENGUAN
ZİÑAN!

AKTORIA
EZ ZONAN HİRE
GUSTOKUA
TA!



NOR-NOK

Oraĩnaldixa

NI

Nozu > non / nok
Nau > najon / najok
Nabe > najone / najuek

HI

Zaittut > haut
Zaittu > hau
Zaittugu > haugu
Zaittue > habe

HA

Dot > jonat / juat
Dozu > don / dok
Dau > jon / jok
Do(g)u > jona(g)u / jua(g)u
Dabe > jone / juek

GU

Gaittuzu > gaittun / gaittuk
Gaittu > gaittun / gaittuk
Gaittue > gaittune / gaittuek

HAREK

Dittut > jittunat / jittuat
Dittuzu-Dozuz > dittun / dittuk
Dittu > jittun / jittuk
Dittu(g)u > jittuna(g)u / jittua(g)u
Dittue > jittune / jittuek

Lehenaldixa

Ninduzun > nindunan / ninduan
Ninduan > najindunan / najinduan
Ninduen > najindunen / najinduen

Zindurazen > hinduran / hinduran
Zinduzen > hindu(n)an / hinduan
Zinduguzen > hindu(na)gun / hindugun
Zinduezen > hindu(n)en / hinduen

Neban > najonan / najuan
Zenduan > heba(na)n / heban
(Z)eban > jonan / juan
Genduan > gendunan / genduan
(Z)eben > jonen / juen

Ginduzuzen > gindunazen / ginduazen
Ginduzen > gindunazen / ginduazen
Ginduezen > gindunezen / ginduezen

Nittuan > najittunan / najittuan
Zenduzen > hittu(n)an / hittuan
Zittuan > jittunan / jittuan
Genduzen > gendunazen / genduazen
Zittuen > jittunen / jittuen



NOR-NORI-NOK (NOR: Ha)

NIK Oraiñaldixa

Detsut > deunat / deuat
Detsat > jetsanat / jetsat
Detset > jetsenat / jetset

HIK

Destazu > destan / destak
Detsazu > detsan / detsak
Deskuzu > deskun / deskuk
Detsezu > detsen / detsek

HAREK

Desta > jestan / jentak
Detsu > deun / deuk
Detsa > jetsan / jetsak
Desku > jeskun / jeskuk
Detse > jetsen / jetsek

GUK

Detsugu > deuna(g)u / deua(g)u
Detsagu > jetsana(g)u / jetsa(g)u
Detsegu > jetsena(g)u / jetse(g)u

HAREK

Deste > jestone / jestek
Detsue > deune / deue
Detse > jetsane / jetsek
Deskue > jeskune / jeskuek
Detse > jetsen / jetsek

Lehenaldixa

Netsun > neunan / neuan
Netsan > najetsanan / najetsan
Netsen > najetsenan / najetsen

Zesta(zu)n > hesta(na)n / hestan
Zentsan > hetsa(na)n / hetsan
Zesku(zu)n > hesku(na)n / hesku(a)n
Zentsen > hetse(na)n / hetsen

(Z)estan > jestan / jestan
(Z)etsun > (z)eunan / (z)euan
(Z)etsan > jetsan / jetsan
(Z)eskun > jeskun / jeskuan
(Z)etsen > jetsen / jetsen

Gentsun > geunan / geuan
Gentsan > gentsanan / gentsan
Gentsen > gentsenan / gentsen

(Z)esten > jestan / jestan
(Z)etsuen > (z)eunen / (z)euen
(Z)etsen > jetsan / jetsan
(Z)eskuen > jeskunen / jeskuen
(Z)etsen > jetsen / jetsen



MÍKELEK EMON EUNAN NOTIZIA, EZTON?

BAI, DEMASEKO SUSTUA EMON JESTANAN!

NOR-NORI-NOK (NOR: Harek)

NIK Oraiñaldixa

Detsuraz > deunaraz / deuaraz
Detsaraz > jetsanaraz / jetsaraz
Detseraz > jetsenaraz / jetseraz

HIK

Destazuz > destanaz / destazak
Detsazuz > detsanaz / detsazak
Deskuzuz > deskunaz / deskuaz
Detsezuz > detsenaz / detsezak

HAREK

Destaz > jestanaz / jestay
Detsuz > deunaz / deuaz
Detsaz > jetsanaz / jetsaz
Deskuz > jeskunaz / jeskuaz
Detsez > jetsenaz / jetsez

GUK

Detsuguz > deuna(g)uz / deua(g)uz
Detsaguz > jetsana(g)uz / jetsa(g)uz
Detseguz > jetsena(g)uz / jetse(g)uz

HAREK

Destez > jestanaz / jestay
Detsuez > deunez / deuez
Detsez > jetsanez / jetsez
Deskuez > jeskunez / jeskuez
Detsez > jetsenez / jetsez

Lehenaldixa

Netsuzen > neunazen / neuazen
Netsazen > najetsanazen / najetsazen
Netsezen > najetsenazen / najetsezen

Zesta(zu)zen > hesta(na)zen / hestazen
Zentsazen > hetsa(na)zen / hetsazen
Zesku(zu)zen > hesku(na)zen / hesku(a)zen
Zentsezen > hetse(na)zen / hetsezen

(Z)estazen > jestanazen / jestayzen
(Z)etsuzen > (z)eunazen / (z)euazen
(Z)etsazen > jetsanazen / jetsazzen
(Z)eskuzen > jeskunazen / jeskuazzen
(Z)etsezen > jetsenazen / jetsezzen

Gentsuzen > geunazen / geuazen
Gentsazen > gentsanazen / gentsazzen
Gentsezen > gentsenazen / gentsezzen

(Z)estezen > jestanazzen / jestayzen
(Z)etsuezen > (z)eunezen / (z)euazzen
(Z)etsezen > jetsanezen / jetsezzen
(Z)eskuezen > jeskunezen / jeskuezen
(Z)etsezen > jetsenezen / jetsezzen

OPORRAK EMON
JESTANEZ LANIAN!



ZE ONDO! GURI
ABUZTUAN EMONGO
JESKUNEZ



EUKI

Orañaldixa

Dakat > jakanat / jakat
Dakazu > dakan / dakak
Daka > jakan / jakak
Daka(g)u > jakana(g)u / jaka(g)u
Dake > jakane / jakek

Lehenaldixa

Nekan > najekanan / najekan
Zekazun > hekanan / hekan
(Z)ekan > jekanan / jekan
Genkan > genkanan / genkan
(Z)eken > jekanan / jeken


ETORRI

Orañaldixa

Nator > naton / natok
Zatoz > hator
Dator > daton / datok
Gatoz > gatonaz / gatozak
Datoz > datonaz / datozak

Lehenaldixa

Netorren > n(aj)etonan / n(aj)etuan
Zentozen > hetorren
(Z)etorren > jetonan / jetuan
Gentozen > gentonazen / gentuazen
(Z)etozen > jetonazen / jetuazen



HIK BADAKAN
KONTZIERTORA
JUATEKO ASMORIK?

ASMUA BANAJEKANAN,
BAIÑA OIN ETXAKIÑAT
ZE EİN



PARKATU,
BERANDU NATOK

LO GUTXI EİNDA
HATOR Hİ,
PARRANDERİORİ!

IBILI

Oraĩnaldixa

Nabil > nabin / nabik
Zabiz > habil
Dabil > dabin / dabik
Gabiz > gabiñaz / gabixaz
Dabiz > dabiñaz / dabixaz

Lehenaldixa

Nebillen > n(aj)ebiñan / n(aj)ebixan
Zebizen > hebillen
(Z)ebillen > jebiñan / jebixan
Gebizen > gebiñazen / gebixazen
(Z)ebizen > jebiñazen / jebixazen

ZE DABIK HORI,
HAINBESTE ZARATAKIN?

ETXIAN OBRETAN
DABIÑAZ



EGON

Oraĩnaldixa

Na(g)o > na(g)on / na(g)ok
Za(g)oz-Zare > ha(g)o
Da(g)o > da(g)on / da(g)ok
Ga(g)oz-Gare > ga(g)onaz /
ga(g)ozak
Da(g)oz-Dare > da(g)onaz /
da(g)uaz

Lehenaldixa

Nenguan > najeonan / najeuan
Zengozen-Zenden > he(ng)uan
(Z)eguan > jeonan / jeuan
Genguazen-Genden > geonazen /
geuazen
(Z)eguazen > jeonazen / jeuzen

ZUEK FOBALLA IKUSTEN?
ETXEONAN BESTE EZER, ALA?

ASPERTUTA GEONAZEN
PELIKULA TXAR BAT IKUSTEN



JUAN

Oraĩñaldixa

Noia > najoian / najoiak
Zoiaz > hoia
Doia > joian / joiak
Goiaz > goianaz / goiazak
Doiaz > joianaz / joiazak

Lehenaldixa

Nindoian > najindoianan / najndoian
Zindoiaz > hindoia(na)n / hindoian
Zoian > joianan / joian
Gindoiaz > gindoianazen / gindoiaz
Zoiaz > joianazen / joiaz

MENDÍRA GOIANAZ!



HÍ BALDÍN BAHÓIA,
NEU BE BANAJÓIAN!



JAKIN

(NOR: Ha)

Oraĩñaldixa

Dakit > jakiñat / jakixat
Dakizu > dakin / dakik
Daki > jakin / jakik
Dakigu > jakiña(g)u / jakixa(g)u
Dakixe > jakiñe / jakixek

Lehenaldixa

Nekixan > najekiñan / najekixan
Zekizun > hekiñan / hekixan
(Z)ekixan > jekiñan / jekixan
Genkixan > genkiñan / genkixan
(Z)ekixen > jekiñen / jekixen

(NOR: Harek)

Oraĩñaldixa

Dakiraz > jakiñaraz / jakixaraz
Dakizuz > dakiñaz / dakixaz
Dakiz > jakiñaz / jakixaz
Dakiguz > jakiña(g)uz / jakixa(g)uz
Dakixez > jakiñez / jakixez

Lehenaldixa

Nekixazen > najekiñazen / najekixazen
Zekizuzen > hekiñazen / hekixazen
(Z)ekixazen > jekiñazen / jekixazen
Genkixazen > genkiñazen / genkixazen
(Z)ekixezen > jekiñezen / jekixezen

HÍK BADA KÍK MIKEL
NOÍZ DATORREN?



ETXAKÍXAT...
GUK ETXAKÍXAU EZER



ERABILI

Orañaldixa

Darabitt > jarabiñat / jarabixat
Darabizu > darabin / darabik
Darabil > jarabin / jarabik
Darabigu > jarabiña(g)u / jarabixa(g)u
Darabixe > jarabiñe / jarabixek

Lehenaldixa

Nerabixan > najerabiñan / najerabixan
Zerabizun > herabixa(na)n / herabixan
(Z)erabixan > jerabiñan / jerabixan
Gerabixan > gerabiñan / gerabixan
(Z)erabixen > jerabiñen / jerabixen

ZE DARABIN
ESKU ARTIAN?

ERAKUSKETA BAT
IPINTZIA JARABIXAT
BURUAN...



JARDUN

Orañaldixa

Dihardut > jihardunat / jiharduat
Diharduzu > dihardun / diharduk
Dihardu > jihardun / jiharduk
Dihardugu > jiharduna(g)u / jihardua(g)u
Dihardue > jihardune / jiharduek

Lehenaldixa

Niharduan > najihardunan / najiharduan
Ziharduzun > hihardunan / hiharduan
Ziharduan > jihardunan / jiharduan
Giharduan > gihardunan / giharduan
Ziharduen > jihardunen / jiharduen

Hi,
ZETAN DIHARDUN?

SELFIE BAT
ETARTZEN
JIHARDUNAT!



ERUAN

Orañaldixa

Daroiat > jaroianat / jarioat
Daroiazu > daroian / daroiak
Daroia > jarioian / jarioiak

Lehenaldixa

Neroian > najeroianan / najeroian
Zeroiazun > heroianan / heroian
(Z)eroian > jeroianan / jeroian

ESAN (*IÑO)

Orañaldixa

Diñot > jiñonat / jiñuat
Diñozu > diñon / diñok
Diño > jiñon / jiñok
Diñogu > jiñona(g)u / jiñua(g)u
Diñue > jiñone / jiñuek

Lehenaldixa

Niñuan > najiñonan / najiñuan
Ziñuan > hiñonan / hiñuan
Jiñuan > jiñonan / jiñuan
Giñuan > giñonan / giñuan
Ziñuen > jiñonen / jiñuen

IRUDITU

Orañaldixa

Diruditt > jirudiñat / jirudixat
Dirudizu > dirudin / dirudik
Dirudi > jirudin / jirudik
Dirudigu > jirudiña(g)u /
jirudixa(g)u
Dirudixe > jirudiñe / jirudixek

Lehenaldixa

Nirudixan > najirudiñan / najirudixan
Zirudizun > hirudixanan / hirudixan
Zirudixan > jirudiñan / jirudixan
Girudixan > girudiñan /
girudixan
Zirudixen > jirudiñen / jirudixen

BESTE ADITZ BATZUK

BALDINTZIA eta ONDORIXUA

NOR

Baldintzia

Banitza > banitzon / banitzok
Baziña > bahitza(na) / bahitza
Balitza > balitzon / balitzok
Bagiña > bagiñonaz / bagiñuaz
Balitzaz-Balira > balitzonaz / balitzuaz

Ondorixua

Nitzake > nitzaken / nitzakek
Ziñake > hitzake
Litzake > litzaken / litzakek
Giñake > giñakenaz / giñakiaz
Litzakez-Lirake > litzakenaz / litzakiaz

ABERATSA BANITZON,
ENITZAKEN HAMEN
EGONGO!



EGIXA!
KARIBEN EGONGO
GIÑAKENAZ!



AHALERIA

NOR

Orañaldixa/ hipotetikua

Neike > neiken / neikek
Zeinke > heike
Leike > leiken / leikek
Geinke > geinkenaz / geinkiaz
Leikez > leikenaz / leikiaz

Lehenaldixa

Neinkian > neinkenaz / neinkiaz
Zeinkian-Zeinkezen >
heinkian-heinkenaz / heinkiaz
Zeikian > jeikenaz / jeikiaz
Geinkian-Geinkezen >
geinkenazen / geinkiazzen
Zeikezen > jeikenazen / jeikiazzen

NOR-NORK

(NOR: Ha)

Orañaldixa/ hipotetikua

Neike > n(aj)eiken / n(aj)eikek
Zeinke > heike(n) / heike
Leike > l(aj)eiken / l(aj)eikek
Geinke > geinken / geinkek
Leikie > l(aj)eikene / l(aj)eikiek

Lehenaldixa

Neikian > n(aj)eikenaz / n(aj)eikian
Zeinkian > heikian-heinkenaz / heikian
Zeikian > jeikenaz / jeikian
Geinkian > geinkenaz / geinkiazzen
Zeikien > jeikenaz / jeikiazzen

AGINTERIA

NOR

Hi zintzua izan hari

NOR-NORK

Hik bertsua bota iñ / ik
Hik bertsuak bota iñaz / ixaz

NOR-NORI-NORK (NOR: Ha)

Hik neri ogixa emon iran / irak
Hik hari ogixa emon ixon / ixok
Hik guri ogixa emon igun / iguk
Hik hareri ogixa emon ixone / ixuek

GUSTORA EINGO
NAJEUKEN
HORI BIAJIORI!



EIN HEIKE,
GURA BADOK!

ZINTZUA IZAN HARI
ETA ESAIRAN EGIXA!



AURKIBIDIA

SARRERIA

Eibarko hika poltsikuan	2
Gainbeheriaren arrazoi nagusixak	2

HIKA: LAGUNARTEKO TRATAMENTUA	3
Hiru tratamendu edo erregistro erabili izan dia Eibarren	3
Zer emoten dau hikak?	3
Zeiñekin bai eta zeñekin ez?	3
Genero-markia, hikaren berezittasuna	4
Biren arteko tratua	4

ADITZ GUZTI-GUZTIAK HIKA?

ZU-ren ordeztu beti HI	5
Menpeko esaldixetan, HI danian bakarrik	6
Baldintzetan, galderetan eta aginduetan bai	7
Genero-marka bariko aditzak	8

ADITZ-TAULAK: IRIZPIDIAK

Aditz nagusixak	9
Aldaerak	9
Esan eta idatzi desbardin	9

NOR	10
NOR-NORI	11
NOR-NORK	12
NOR-NORI-NORK	13

Aditz trinkuak

EUKI	18
ETORRI	19
IBILI	20
EGON	21
JUAN	22
JAKIN	23
ERABILI	24
JARDUN	25
ERUAN	26
IÑO	26
IRUDITU	26

Beste aditz batzuk

Baldintzia eta ondorixua	27
Ahaleria	28
Aginteria	29



Diseinua eta ilustrazioak: Mirari Sagarzazu
Egilea: Badihardugu Euskara Elkartea



EIBARKO UDALA



Badihardugu

Deba Ibarreko Euskera Alkartia

HIK
BADAKIN
HIKA?

JAKIÑA!
PANTXIKA
BETI HIKA!



Jaitsi Appa hi!